

BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

4550

EBAZPENA, 2025eko urriaren 20koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren Zerbitzu zuzendariarena, zeinaren bidez entzunaldia eman eta jendaurrean jartzen baita jabari publiko hidraulikoko urtegietan planta fotovoltaiko flotatzaileak instalatzeko araubidea ezartzen duen Dekretu-proiektua.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren sailburuaren 2025eko abuztuaren 11ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko barruko arroetan jabari publiko hidraulikoko urtegietan planta fotovoltaiko flotatzaileak instalatzeko araubidea ezartzen duen dekretu-proiektua egiteko prozedura hastea erabaki zen.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak 17. artikuluan ezarritakoaren arabera, herritarren eskubide eta interes legitimoen eragiten dieten xedapen orokorrei entzunaldia emango zaie; halaber, jendaurrean jarriko dira, xedapenen ezaugarriek hala gomentatzen dutenean.

Era berean, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren sailburuaren 2025eko abuztuaren 11ko Aginduaren arabera, jabari publiko hidraulikoko urtegietan planta fotovoltaiko flotatzaileak instalatzeko araubidea ezartzen duen dekretu-proiektuari entzunaldia eman behar zaio, legez aitortzen diren eta ukitutako herritarrak batzen edo ordezkatzeko dituzten erakunde eta elkar-teen bidez, baldin eta horien xedeek harreman zuzena badute xedapenaren helburuarekin, organo honen ustez, arau-xedapenaren izaera kontuan hartuta, hori delako egiteko modurik onena. Era berean, dekretu-proiektua jendaurrean jarriko da.

Horregatik, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuaren 7.h) artikulua zuzendari kargua duten pertsonen ematen dien eskuduntzaz baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Entzunaldia eman eta jendaurrean jartzea jabari publiko hidraulikoko urtegietan planta fotovoltaiko flotatzaileak instalatzeko araubidea ezartzen duen dekretu-proiektua, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.– Aurreko apartatua xedatutakoaren ondoretarako, eta alegazioak aurkezte aldera, jabari publiko hidraulikoko urtegietan planta fotovoltaiko flotatzaileak instalatzeko araubidea ezartzen duen dekretu-proiektuaren testua eskuragarri egongo da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hasiera>) eta Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren web-orrian (Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saila – Eusko Jaurlaritza – Euskadi.eus).

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 20a.

Zerbitzu zuzendaria,
IÑAKI ALDEKOGARAI LABAKA.